

EUSKAL AEKO KANPO-MERKATARITZAREN ESTATISTIKAK (KAMEE), 2011KO 4. HIRUHILEKOA

Euskal AEko esportazioak % 24,8 hazi dira 2011ko laugarren hiruhilekoan

Inportazioek % 2,8 egin dute behera denboraldi berean

Euskal AEko esportazioak: EUSTATEk emandako datuen arabera, Euskal AEko **esportazioek** % 24,8ko hazkunde nominala izan dute 2011ko laugarren hiruhilekoan. Urte honetan 5.803 milioi euroraino igo dira eta aurreko urtean 4.649 milioira.

Euskal AEko inportazioak: Euskal AEko **inportazioek** % 2,8ko beherapen nominala izan dute urte honetako laugarren hiruhilekoan, eta guztira 3.949 milioi eurora iritsi dira. Inportazio ez-energetikoak bakarrik kontuan hartuta, aztertutako aldian % 4,4ko hazkundera eta 2.743 milioi euroko balioa izan dute.


Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2011, Laugarren hiruhilekoa. Milaka eurotan

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urria-Abendua			Urria-Abendua		
	2010	2011	Δ %	2010	2011	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.648.905	5.802.850	24,8	4.061.159	3.948.972	-2,8
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	452.680	927.077	104,8	1.432.719	1.206.160	-15,8
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.196.225	4.875.773	16,2	2.628.440	2.742.812	4,4
ARABA / ÁLAVA						
GUZTIRA	1.197.280	1.433.417	19,7	625.083	714.350	14,3
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.013	430	-57,6	8.154	7.667	-6,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.196.266	1.432.987	19,8	616.930	706.683	14,5
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.995.427	2.557.813	28,2	2.591.297	2.385.531	-7,9
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	445.558	919.029	106,3	1.394.184	1.163.879	-16,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.549.869	1.638.784	5,7	1.197.112	1.221.652	2,0
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.456.198	1.811.620	24,4	844.779	849.092	0,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	6.108	7.618	24,7	30.381	34.615	13,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.450.089	1.804.002	24,4	814.398	814.477	0,0

Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Esportazioen **saldo** garbia ken inportazioak positiboa izan da laugarren hiruhilekoan; ondorioz, 1.854 milioi euroko merkataritza **superabita** izan da eta esportazioen estaldura-tasa inportazioen aldean % 146,9koa izan da. Baina inportatu eta esportatu diren produktu energetikoak alde batera utzita, **merkataritzako saldo ez-energetikoak** superabit askoz handiagoa izan du, 2.133 milioikoa (2010. urteko laugarren hiruhilekoan baino 565 milioi gehiagorekin). Aztertutako aldian, estaldura-tasa ez-energetikoa % 159,6koa izan zen 2010. urtean eta % 177,8koa 2011ko laugarren hiruhilekoan.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. Urte arteko hazkunde tasak



Iturria: Eustat. KAMEE: Euskal AEko kanpo-merkataritzako estatistikak

Europar Batasunerako ziren 2011ko laugarren hiruhilekoko **esportazioak** % 34,4 hazi dira, 2010eko aldi beraren aldean. Urteko urterako bolumena eta hazkundea aintzat hartuta, esportazio horien artean honakoak azpimarratu behar dira: Frantziarakoak (% 86,4), Alemaniarakoak (% 14,9) eta Erresuma Baturakoak (% 44,3). Italia (-% 10) eta Belgikari (-% 2,9) dagokienez esportazioek tasa negatiboak izan dituzte. EB-27tik kanpo, nabarmentzekoa da hurrengo herrialdeetarako esportazioak gehitu egin direla: Iran (% 287,2), Mexiko (% 55,8), Venezuela (% 40,0) eta Txina (% 30,8).

Europar Batasunetik etorritako **inportazioak** % 6 gehitu dira; horien artean, bolumena eta urte arteko hazkundea oinarritzat hartuta, inportazio hauek gehitu dira: Alemania (% 17,8), Italia (% 13,5) eta Belgika (% 38,5). Erresuma Batutik etorritako inportazioek, aldiz, behera egin dute (-% 4,9). Munduko gainerako herrialdeei dagokienez, Indiatik (% 342,7), Irlandatik (% 199,6), Ameriketako Estatu Batuetatik (% 121,5) eta Mexikotik (% 67,1) etorritako inportazioak izan dira nagusi.

Muga-zergak aztertuta, eta esportazioei dagokienez, *Produktu mineralak* izeneko atala nabarmendu behar da; atal hau garrantzitsuenen artean dinamikoena izan da, % 104,8ko hazkundea izan du eta hiruhileko horretako esportazio guztien % 16 hartu du. Gainerako atal garrantzitsuenen artean hauek azpimarratu behar dira: *garraio-materiala*, % 25,7ko hazkundearekin eta esportazio guztien % 20 hartuta; eta *material elektrikoa*, % 25,4ko hazkundearekin eta esportazioen % 21 hartuta.

Inportazioak aztertzean, eta pisu espezifiko handiena dutenak aintzat hartuta, honako beherapenak eman dira: *produktu mineralak*, -% 15,8 egin dute behera (inportatu den guztiaren % 30,5) eta *metalak eta horien manufakturak*, -% 6,2 (guztirakoaren % 21). Gainerako atal garrantzitsuenak aztertuz, *plastikoak eta kautxua* (% 38,8), *produktu kimikoak* (% 38,2) eta *garraio-materiala* (% 23,6) delakoen inportazioek urte batetik bestera izan dituzten hazkundeak azpimarratu behar dira.

Esportazioek **Bizkaian** izan dute urtetik urterako hazkunderik handiena. Lurralde horretako hazkundeak % 28,2koa izan da 2011ko laugarren hiruhilekoan, eta batez ere muga-zerga garrantzitsuenetan eman dira: *produktu mineralak* (% 106,3), *metalak eta horien manufakturak* (% 8,9) eta *plastikoak eta kautxua* (% 27,1); baina, beste aldean, *material elektrikoak* behera egin dute (-% 5,7). Inportazioek -% 7,9 egin dute behera, eta horien artean batez ere honako muga-zergetakoek: *produktu mineralak* (-% 16,5), *metalak eta horien manufakturak* (-% 8,7) eta *material elektrikoa* (-% 4,6).

Gipuzkoako esportazioak % 24,4 hazi dira, aurreko urteko aldi beraren aldean. Lurralde historiko honetan esportazioek izan duten hazkunde hori, batez ere *garraio-materialek* (% 46,2), *material elektrikoak* (% 37,8) eta *metalek eta horien manufakturek* (% 10,1) salmentetan izan duten portaera onaren ondoriozkoa izan da. Guztira, hiru atal horiek lurraldeko esportazio guztien % 83 hartu dute. Inportazioek ia ez dute urte batetik bestera aldaketarik izan (% 0,5). Muga-zerga nagusi biek portaera ezberdinak izan dituzte: *material elektrikoaren* inportazio kopurua % 5,9 igo da baina *metalen eta horien manufakturen* inportazio kopuruak -% 10,1 egin du behera.

Arabako esportazioek % 19,7 egin dute gora urte honetan laugarren hiruhilekoan. *Material elektrikoaren* (% 36,8), *garraio-materialaren* (% 26,6) eta *plastikoen eta kautxuaren* (% 21,9) esportazioak izan dira hiruhileko honetako esportazioen hazkundeari gehien lagundu diotenak. Arabako inportazioek % 14,3 egin dute gora. Inportatzen duten bi atal garrantzitsuenen artean, *material elektrikoak* % 17,3 hazi dira baina *metalak eta horien manufakturak* % 4,8 jaitsi dira.

2011. urteko balantzea

2011. urtean, **Euskal AEko esportazioak** 21.077 milioi eurokoak izan dira, hau da, aurreko urtean baino % 20,1 gehiago. Aldi berean, **inportazio** guztiek ere % 12,1eko hazkundeak izan dute. Bien portaeraren ondorioz, esportazio guztiek inportazioen aldean izan duten estaldura-tasa 8 puntu igo da: 2010. urtean % 115 izan zen eta 2011. urtean % 123. 2011. urteko superabita 3.967 milioi eurokoa izan da, hau da, aurreko urtean baino 1.678 milioi euro gehiago.

Produktu ez-energetikoen **saldoa** aurreko urtekoa baino hobeak izan da: 7.599 milioi eurokoa (2010. urtean 6.079 milioi eurokoa izan zen). Halaber, produktu ez-energetikoen estaldura-tasa 7,3 puntu igo da: 2010ean % 161,1koa izan zen eta 2011n % 168,4koa.


Euskal AEn bai esportazioek bai inportazioek **Estatu** osoan baino hazkunde handiagoa izan dute. Estatuan, esportazioek % 15,4 egin dute gora; baina Euskal AEn % 20,1. Inportazioekin antzeko zerbait gertatu da; Estatuan % 9,6ko hazkunde-tasa eman da eta EAEn % 12,1koa.

Muga-zergak aztertuta, bolumen handiena dutenen artean 2011. urtean hazkunderik handienak izan dituztenak honako ataletako esportazioak izan dira: *metalak eta horien manufakturak* (% 14,8), *garraio-materiala* (% 15,3) eta *material elektrikoa* (% 16,6). Hiru **muga-zerga** hauek, hain zuzen ere, gure esportazioen % 67 hartu dute. Gainerako muga-zergetatik gehienetan ere hazkunde handiak eman dira, pisua eta garrantzia aintzat hartuta besteak beste hauetan: *produktu mineralak* (% 55,9) eta *plastikoak eta kautxua* (% 37,6).

Inportazioei dagokienez, muga-zerga gehienetan eman dira hazkundeak, hala nola: *produktu mineraletan* (% 13,0) eta *metaletan eta horien manufakturetan* (% 13,5). Bi muga-zerga hauek gure inportazio guztien % 58 hartu dute. *Plastikoen eta kautxuaren* atalak % 37,7ko hazkundea izan du eta *material elektrikoa* aurreko urteko maila berean geratu da (% 0,9 haziz).

2011. urte osoan, esportazioetan hazkunderik handiena izan duen lurraldea **Araba** izan da (% 29,6ko hazkundea urtean), gero **Gipuzkoa** (% 18,6) eta azkenik **Bizkaia** (urte batetik bestera % 15,9ko hazkundea). Eta inportazioei dagokienez, hiru lurralde historikoetan eman dira hazkunde nabarmenak; berriz eman da hazkunderik handiena **Arabari** (% 16,9), gero **Bizkaian** (% 12,9) eta azkenik **Gipuzkoan**. Azken lurralde honek izan du hazkunderik txikiena: % 6,4koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritza. Hileko datuak (Joera)



Iturria: Eustat. KAMEE: Kanpo merkataritzaren estatistika

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tel.: +34-945-01 75 13 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua